



GENERO BERDINTASUNEN PLANA

Departamentua:	04 - GOBERNANTZA DEPARTAMENTUA
Atala:	0410 - Araubide Juridikoko Zuzendaritza Nagusia
Programa:	100 - Diputatuen Kontseiluaren Idazkaritza, Aholkularitza eta Defentsa Juridikoa
Funtzionala:	920 - Administrazio orokorra

GENERO BERDINTASUNEN PLANA

Programaren genero garrantzia: Txikia

Programak ukitzen duen kolektiboa:

Populazio osoa

Programak ukitutako gaitasuna(k):

Gizartean eta politikan parte hartu ahal izatea

Beharraren deskribapen xehatua:

Genero ikuspegia politika publikoan txertatzea



GENERO BERDINTASUNEN PLANA

Departamentua: 04 - GOBERNANTZA DEPARTAMENTUA
Atala: 0410 - Araubide Juridikoko Zuzendaritza Nagusia
Programa: 110 - Aldundiko Zerbitzu Orokorrak
Funtzionala: 920 - Administrazio orokorra

GENERO BERDINTASUNEN PLANA

Programaren genero garrantzia: Txikia

Programak ukitzen duen kolektiboa:

Populazio osoa

Programak ukitutako gaitasuna(k):

Gizartean eta politikan parte hartu ahal izatea

Beharraren deskribapen xehatua:

Politika publikoetan genero ikuspegia txertatzeko beharra

GENERO BERDINTASUNEN PLANA

Departamentua:	04 - GOBERNANTZA DEPARTAMENTUA
Atala:	0410 - Araubide Juridikoko Zuzendaritza Nagusia
Programa:	120 - Kontratazio publikoa koordinatzeko zerbitzua
Funtzionala:	920 - Administrazio orokorra

GENERO BERDINTASUNEN PLANA

Programaren genero garrantzia: Handia

Programak ukitzen duen kolektiboa:

Pertsona helduak

Programak ukitutako gaitasuna(k):

Ordaindutako lan bat egitea baldintza egokietan

Beharraren deskribapen xehatua:

Gipuzkoako Foru Aldundiak egiten dituen kontratazioetan emakume eta gizonaren arteko berdintasunari buruzko klausulak sartzea ezinbestekoa da, kontratu bakoitzaren ezaugarriari, kontratuaren objektu bakoitzaren sektorearen ezaugarriari, eta sektore horretan emakume eta gizonen berdintasunean izan daitezkeen arazoak kontutan hartuta egin behar da. Zailtasunak daude klausula mota hauek zehazterakoan, eta kontratuaren exekuzioan jarraipena egiterakoan.

Kuantifikazioa:	2.967,40	(% 1,00)
Ordainketa kredituak:	2.967,40	(% 1,00)
Datozen urteetako gastuak:	0,00	(% 0,00)

Kategoria	Nola	Nola %	Esleitutako adierazlea
Go.HO.5.4. GFaren kontratuetan, dirulaguntzetan eta hitzarmenetan berdintasun klausulak sistematikoki txertatzen jarraitzea eta haien gaineko jarraipena egitea, eraldatzeko duten ahalmena aztertuz (kalitatea eta eragina).	Go.5.4.1. Arau esparru berria oinarritzat harturik, kontratuetan, hitzarmenetan eta dirulaguntzetan berdintasunerako klausulak txertatzeko foru jarraibideen azterketa eta eguneraketa egitea.	(% 100,00)	

GENERO BERDINTASUNEN PLANA

Departamentua: 04 - GOBERNANTZA DEPARTAMENTUA
Atala: 0420 - Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusia
Programa: 200 - Funtzio Publikoa
Funtzionala: 920 - Administrazio orokorra

GENERO BERDINTASUNEN PLANA

Programaren genero garrantzia: Handia

Programak ukitzen duen kolektiboa:

Pertsona helduak

Programak ukitutako gaitasuna(k):

Hezkuntza eta ezagutzarako aukera izatea

Beharraren deskribapen xehatua:

Helburua da berdintasun politikak integratzea Funtzio Publikoaren plantillan eta kudeaketan.

Hauek dira emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun nagusiak Gipuzkoako Foru Aldundiko plantillan: alde batetik, segregazio horizontala dago, foru plantillako lanpostuen eremu edo kategoria jakin batzuk maskulinizatuta baitaude, esate baterako, suhiltzaileak, bidezainak edo basozainak, eta beste batzuk, aldiz, feminizatuta, hala nola zaintzaileak, garbitzaile-jantokiko langileak edo administrariak.

Beste alde batetik, segregazio bertikala dago, alegia, zaila da emakumeak buruzagitza postuetara iristea, eta horren froga da emakume gutxi daudela zerbitzuberu, atalburu eta idazkari tekniko lanpostuetan.

Nabarmendu behar da, halaber, kontziliazio baimen eta lizentzien feminizazioa; izan ere, lizentziak -senitartekoak zaintzeko lanaldi murrizketak eta eszedentziak- eskatzen eta baliatzen dituzten gehienak emakumeak dira. Horrek soldatan eragiten du, eta soldata arrakala orokorra areagotzen du, betiere emakumeen kalterako.

Era berean, emakumeen artean behin-behinekotasun handiagoa dago, emakumeen proportzioa handiagoa baita bai bitarteko langileen artean, bai aldi baterako lan kontratudun langileen artean. Horrek guztiak zailtasunak eragiten ditu garapen profesionalerako eta erantzukizuneko lanpostuak eskuratzeko, eta, ondorioz, generoaren arabera soldata arrakalan eragiten du.

Azkenik, kontuan izan behar da Foru Aldundiko langileek berdintasunaren arloan duten prestakuntza ez dela nahikoa eta feminizatuta dagoela. Ez da nahikoa, plaza gutxi eskaintzen direlako, baina, batez ere, langileen parte-hartzea oso txikia delako, eta, gainera, berdintasun ikastaroetan parte hartzen duten gehienak emakumeak dira.

Kuantifikazioa: 81.776,57 (% 0,76)

Ordainketa kredituak: 81.776,57 (% 0,76)

Datozen urteetako gastuak: 0,00 (% 0,00)

Kategoria	Nola	Nola %	Esleitutako adierazlea
Go.HO.1.2. 2/2015 Foru Araua eta Euskadin indarrean dagoen emakumeen eta gizonen berdintasunerako legea garatuta, konpromiso politikoa zehaztea.	Go.1.2.2. Mekanismoak egokitzea (izendapenak, lan denborak, etab.) onartutako xedapenak, jarraibideak eta estrategiak garatu ahal izateko.	(% 50,00)	
	Go.1.2.3. 2/2015 Foru Arauarekin bat etorrita, emakumeen eta gizonen berdintasunerako politika sustatzeko eta garatzeko GFAk bereizten duen aurrekontua progresiboki egokitzea.	(% 50,00)	



Kategoria	Nola	Nola %	Esleitutako adierazlea
Go.HO.3.2. GFAaren genero arkitekturaren garapenean aurrerapausoak egitea Berdintasunerako Organoak sustatutako berdintasun politika.	Go.3.2.1. GFAko Departamentuetan jada sortutako berdintasunerako administrazio unitateak finkatzea.	(% 100,00)	
Go.HO.4.1. Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan eta Gipuzkoako Foru Aldundiko langileei zuzendurik, oinarrizko trebakuntza, espezifiko eta espezializatua bermatzeko bide bat inplementatzea.	Go.4.1.1. Legegintzaldiko estrategia diseinatzea berdintasun arloan oinarrizko formakuntza Plana inplementatzeko.	(% 25,00)	
	Go.4.1.2. Emakumeen eta gizonen berdintasun arloan GFAko langile guztiak trebatzea (oinarrizko formakuntza).	(% 50,00)	
	Go.4.1.3. GFAko teknikariak trebatzea arloetako politiketan eta administrazio prozedura arruntetan genero ikuspegia progresiboki inplementatu ahal izan dezaten (formakuntza espezifiko).	(% 25,00)	
Go.HO.5.1. Informazioaren sorreran, tratamenduan eta zabalkundearen sexu aldagaia sistematikoki txertatzen jarraitzea, eta pertsonen zein genero ikuspegia txertatzeko prozesuei eta prozedurei buruzko adierazleak sortzeko eta jasotzeko aurrerapausoak egitea.	Go.5.1.3. GFaren azterlanetan, planetan, txostenetan eta gainerako dokumentazio estrategikoetan datuak sexuaren arabera eta genero adierazleekin sartzea.	(% 100,00)	
Ek.HO.13.3. Kontziliazio erantzukidea sustatzea GFAn eta GFAk kudeatzen dituen baliabideetan	Ek.13.3.1. Gizonek kontziliazioa gauzatzeko neurrien erabilera sustatzeko estrategia bat diseinatzea eta aplikatzea, betiere emakumeentzako kaltegarria ez bada edo desberdintasuna ekartzen ez badu.	(% 50,00)	
	Ek.13.3.2. Laneko arriskuak prebenitzeko ikastaroetan izaera psikosozialeko arriskuak aintzat hartzea, horien artean lanaldi bikoitzaren ondorioak (antsietatea, nekea, etab.) eta emakumeengan ondorio horiek prebenitzeko erantzukidetasunaren behararen kontzientzia kontuan harturik.	(% 50,00)	

GENERO BERDINTASUNEN PLANA

Departamentua:	04 - GOBERNANTZA DEPARTAMENTUA
Atala:	0430 - Gobernu Oneko eta Berrikuntza Politiko-sozialeko Zuzendaritza Nagusia
Programa:	300 - Gobernu Ona eta Herritarren Partaidetza
Funtzionala:	924 - Herritarren parte hartzea

GENERO BERDINTASUNEN PLANA

Programaren genero garrantzia: Handia

Programak ukitzen duen kolektiboa:

Populazio osoa

Programak ukitutako gaitasuna(k):

Gizartean eta politikan parte hartu ahal izatea

Beharraren deskribapen xehatua:

Herritarren Partaidetzako aurrekontu-programak hainbat arau-agindu ezartzen ditu emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna arautzeko, eta honako hauek dira kontuan hartu beharreko garrantzitsuenak:

- 3/2007 Legea, martxoaren 22koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarriko
- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistatik gabeko Bizitzetarako Legea (martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako testu bateginak)
- 2/2015 Foru Araua, martxoaren 9koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoa.
- Gipuzkoako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Foru Plana 2020-2023
- 5/2018 Foru Araua, azaroaren 12koa, herritarren parte-hartzeari buruzkoa. Arau horren barruan, zehatz-mehatz banakatzen dira emakumeen eta gizonen berdintasuna arautzen eta aurreikusten duten artikulatuak.

Gure helburu estrategikoetako baten bitartez, kultura politiko demokratikoan sakondu nahi dugu, administrazioaren egiteko eta harremanetarako moduak aldatuz, herritarrek erabakietan parte hartzeko duten eskubidea aitortuz eta bermatuz. Horretarako, unibertsaltasunaren, berdintasunaren, inklusioaren, gardentasunaren eta etika publikoaren printzipioak jorratuko ditugu bereziki.

Erakundeek egiten duten unibertsaltasunaren printzipioa kontuan hartu behar da; besteak beste, herritar guztiek parte hartzeko duten eskubidea bermatu behar da, lurralde-orekatik, aniztasun sozialetik eta ekonomikotik abiatuta. Emakumeek eta gizonen berdintasunean parte har dezaten lan egingo dugu.

Identifikatutako desberdintasun nagusiak honako hauek dira:

- Informazioaren gabeziak
- Gaika eta eremuka bereizitako espazioak
- Segregazio bertikala
- Parte hartzeko moduan dauden aldeak
- Klausulen emaitza desberdinak.

Gure esku-hartzeetan desberdintasunak gutxitze aldera, honako alderdi hauetan jarriko dugu arreta:

- Datuen bilketa hobetzea
- Emakumeen proposamenak sustatzea eta aitortzea, sexuaren araberako bereizketaren bidez.
- Parte hartzeko prozesuak genero-ikuspegitik diseinatu eta ebaluatzeko prestakuntza ematea.

Egiteko moduak hobetzeko, 4 ekintza ezartzen dira:

- Datu-basea egitea kalitate-adierazleekin, genero-adierazleak txertatuta.
- Talde feministek partaidetzazko deliberazio-prozesuetan parte har dezaten erraztea, eztabaida-prozesuen barruan talde feministekin berriazko foroak, taldeak edo tailerrak sortuz; talde feministei laguntza logistikoa emanez; talde feministekin informazio-/komunikazio-bideak ezarriz; ebaluazio- eta atzeraelikadura-mekanismoak ezarriz, talde feministen eztabaida-prozesuei buruzko iruzkinak jasotzeko.
- Dirulaguntzen ildoetan, emakumeek partaidetza prozesuetan duten parte-hartzea baloratzea.
- Prestakuntza programetan genero ikuspegia txertatzea, eduki edo modulu espezifikoen bidez; erabilitako materialak, irakasle-talde espezializatua...



Kuantifikazioa:	33.555,39	(% 1,03)
Ordainketa kredituak:	33.555,39	(% 1,23)
Datozen urteetako gastuak:	0,00	(% 0,00)

Kategoria	Nola	Nola %	Esleitutako adierazlea
Go.HO.5.1. Informazioaren sorreran, tratamenduan eta zabalkundean sexu aldagaia sistematikoki txertatzen jarraitzea, eta pertsoneri zein genero ikuspegia txertatzeko prozesuei eta prozedurei buruzko adierazleak sortzeko eta jasotzeko aurrerapausoak egitea.	Go.5.1.3. GFaren azterlanetan, planetan, txostenetan eta gainerako dokumentazio estrategikoetan datuak sexuaren arabera eta genero adierazleekin sartzea.	(% 50,00)	
	Partaidetzazko zuzendaritzak sexuaren aldagaia bereiziko du abian jartzen diren ekintza eta parte-hartze prozesu guztietan.	(% 50,00)	

GENERO BERDINTASUNEN PLANA

Departamentua: 04 - GOBERNANTZA DEPARTAMENTUA
Atala: 0440 - Administrazioaren Berrikuntzako Zuzendaritza Nagusia
Programa: 400 - Foru Aldundiko zerbitzuen berrikuntza eta eraldaketa
Funtzionala: 920 - Administrazio orokorra

GENERO BERDINTASUNEN PLANA

Programaren genero garrantzia: Ertaina

Programak ukitzen duen kolektiboa:

Populazio osoa

Programak ukitutako gaitasuna(k):

Gizartean eta politikan parte hartu ahal izatea

Beharraren deskribapen xehatua:

Zerbitzuetatik bultzatzen ditugun hobekuntza proiektuen bitartez erakundearen eraldaketako arlo guztietan genero ikuspuntua txertatzeko aukera ikusten dugu.

Kuantifikazioa: 114.573,41 (% 2,37)
Ordainketa kredituak: 114.573,41 (% 2,41)
Datozen urteetako gastuak: 0,00 (% 0,00)

Kategoria	Nola	Nola %	Esleitutako adierazlea
Go.HO.5.1. Informazioaren sorreran, tratamenduan eta zabalkundearen sexu aldagaia sistematikoki txertatzen jarraitzea, eta pertsonen zein genero ikuspegia txertatzeko prozesuei eta prozedurei buruzko adierazleak sortzeko eta jasotzeko aurrerapausoak egitea.	Go.5.1.3. GFaren azterlanetan, planetan, txostenetan eta gainerako dokumentazio estrategikoetan datuak sexuaren arabera eta genero adierazleekin sartzea.	(% 100,00)	
Go. HO.5.3. GFAk zuzenean egiten dituen edo hirugarren pertsonen edo entitateen bidez GFarentzat egiten diren dokumentuetan eta euskarrietan hizkuntza ez sexista eta inklusiboaren erabileran sakontzen jarraitzea.	Go.5.3.1. Foru Aldundiaren intranetean gune bat eta adierazle sorta bat sortzea, GFAko langileek dokumentuetan hizkuntza ez sexistaren erabilerari buruz izan ditzaketen zalantzak argitzeko.	(% 100,00)	



GENERO BERDINTASUNEN PLANA

Departamentua:	04 - GOBERNANTZA DEPARTAMENTUA
Atala:	0450 - Prebentzio, Su Itzalketa eta Salbamendu Zuzendaritza Nagusia
Programa:	500 - Suaren aurkako babesa eta sorospena
Funtzionala:	136 - Prebentzio eta suhiltzaile zerbitzua eta salbamendua

GENERO BERDINTASUNEN PLANA

Programaren genero garrantzia: Txikia

Programak ukitzen duen kolektiboa:

Populazio osoa

Programak ukitutako gaitasuna(k):

Ordaindutako lan bat egitea baldintza egokietan

Beharraren deskribapen xehatua:

Parkeen egokitzea emakumeen beharrei eta hautaketa prozesuetan emakumearen presentzia bermatu eta areagotzea zerbitzuaren egoera hobetzeko.